



direla kultura-politika gehienak eta herritarrek maila horretan dutela gizarteko kide aktibo gisa parte hartzeko aukera.

Gainera, bistakoa da musika-ikastegiek udalerriei ematen dieten bizitza kultural eta artistikoa. Horri esker, herritarrek aukera dute beste herritar batzuek jasotako prestakuntzaren emaitzaz gozatzeko, zerbitzuak zuzenean erabiltzen ez badituzte ere. Beraz, hizpide ditugun eskoletako adierazpen artistikoen garrantzia ikusita, herritarren partaidetzaren eta udalerriaren garapenaren funtsezko ardatz direla ulertu behar da.

Edonola ere, ezin dugu ahaztu musika taldean egitea, musika-eskoletako funtsezko jarduera, tresna indartsua dela eskola-arazo nagusiei aurre egitea ahalbidetzen duten balioak eta jarrerak zabaltzeko; besteak beste, eskola-porrotari, absentismoari eta ikastetxeetako bizikidetzak desagokiari aurre egiten laguntzen dute, eta, beraz, hezkuntza-sistemaren osagai ere badira.

II. 1990. urtean LOGSE legea onartzeak errotiko aldaketa kualitatiboa ekarri zuen arte-irakaskuntzen hezkuntza-antolamenduan; batez ere, musika-irakaskuntzetan. Izan ere, lehen aldiz jaso zen hezkuntzako lege batean aukera hau: musika- eta dantza-ikasketak egitea, inolako adin-mugarik gabe, balio akademiko eta profesionaleko tituluak lortzera bideratu gabe, eskola espezifikotik, hezkuntza arautuen antolaketa eta egiturez bestelakoekin. Horrela hasi ziren musika- eta dantza-eskolak musikaren alorreko ikastegi eta irakaskuntza eredu berri gisa, lege onartuta eta hezkuntzako administrazioek erregelamendu bidez araututa.

Lege horrek ekarritako berrikuntza garrantzitsuenetako bat izan zen aukera eman zuela herritar guztiei zuzendutako musika-irakaskuntzen eredu unibertsal bat ezartzeko, adin-mugarik gabe eta aurretiazko gaitasun espezifikorik erakutsi beharrik gabe.

Ildo beretik, lege horrek aukera eman zien hezkuntzako administrazioei lankidetzahitzarmen espezifikoa sinatzeko tokiko udalekin, balio akademikoa duten tituluak lortzera bideratuta ez dauden musika-irakaskuntzak garatze aldera.

Lege horretan jasotako irakaskuntza arautuak graduatan egituratu ziren, eta xehe-xehe finkatu ziren horietako bakoitzean sailkatutako irakaskuntzen iraupenak (oinarrizko maila: lau ikasturte; erdi-maila: bi ikasturteko hiru ziklo; eta goi-maila: lau edo bost ikasturteko ziklo bakarra, espezialitatearen arabera).

LOGSEk balio akademikoa duten tituluak lortzera bideratuta ez dagoen musika-irakaskuntzari buruz xedatu duena arauen bidez garatzeko, 289/1992 Dekretua argitaratu zen, urriaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituen. Horren bidez, legeko definizio bat eman zitzaion musika-eskolei. Halaber, bertan ezarri zen hezkuntza-administrazioak administrazio-baimena eman behar duela musika-eskolak irekitzeko eta martxan izateko, dekretu horretan ezarritako gutxieneko betekizunak konplitzearen arabera.

Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak ez die erreferentziarik egiten tokiko erakundeei, baina 26. artikuluan xedatzen da musika-eskolak edozein administrazio publikoren titulartasunekoak izan daitezkeela. Edonola ere, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian aitortzen da tokiko udalen eskumena dela irakaskuntza-zentro publikoak sortzea, udalek eta hezkuntzako administrazioek hala adosten dutenean.

Egun indarrean dagoen Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak (maiatzaren 3koa, aurrerantzean LOE), aldaketa guztiak aintzat hartuta, eutsi egin dio argumentu-ildo horri, eta ez dakar berritasunik balio akademikoa duten tituluak lortzera bideratuta ez dauden musika-

irakaskuntzak garatzeari dagokionez. Beraz, lege horrek ere ez die udalei eskumenik ematen arlo horretan jarduteko, baina, hala ere, aukera ematen jarraitzen du hezkuntzako administrazioek lankidetzat-hitzarmen espezifikoak egiteko udalekin, hizpide ditugun irakaskuntzak garatze aldera.

III. Musika- eta dantza-eskolak finantzatzeko erreferentetzat hartzen den Europako ereduak edo "Europako idealak" herenetan banatutako finantzazioa du oinarri: % 33 gobernu autonomoek finantzatzen dute, % 33 udalek eta % 33 ikasleen matrikulek. Izan ere, finantzaketa-eredu horren helburua da zerbitzuaren iraunkortasuna bermatzea eta eredu finantzatzeko erantzunkidetasuna hartzea. Modu horretan gairitu nahi da herritar guztiei musikarako irispidea izatea eragozten dien iragazki ekonomikoa.

Legez besteko proposamen horretan eskatutakoa betetzeko, Hezkuntza Saila handitzen joan da musika-eskolak finantzatzeko deialdi publikoetara bideratutako aurrekontu-zuzkidura, Hezkuntza Administrazioak kostuaren % 33 finantzatzea lortzen saiatzeko.

Legez besteko proposamen hori betetzeko, Hezkuntza Saila handitzen joan da udal-titulartasuneko kontserbatorioak eta musika-eskolak finantzatzeko deialdi publikoetara bideratutako aurrekontu-zuzkidura, Hezkuntza Administrazioak kostuaren % 33 finantzatzea lortzen saiatzeko.

Kostu guztiaren herena finantzatu beharrak, udal-titulartasuneko kontserbatorioek eta musika-eskolek eskainiko dituzten zerbitzuen estandarren araberakoa baita, bi ondorio ditu: batetik, ikastegi mota bakoitzean dagoen prestakuntza-eskaintzaren estandarra zehaztu beharra; eta, bestetik, ETEL indarrean sartu orduko musika-irakaskuntza arautuak eta ez-arautuak emateko baimena zuten musika-ikastegi guztiei bermatzea aipatu finantzaketa jasoko dutela.



48.2 eta 48.1 artikuluetan xedatutako oinarritzko musika-irakaskuntzak ematen dituztenak, eta udal-titulartasuneko musika-eskolak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak ezartzen dituenak), betiere ikastegiek administrazio-baimena bazuten ETEL indarrean sartu zenerako.

**Bigarrena.-** Udal-titulartasuneko musika-ikastegien estandarra osatzen duten zerbitzuak

Hirugarrena.- Laguntzaren aurrekontu-zuzkidura eta zenbateko indibidualizatua

3.- Aurreko atalean ezarritakoari jarraikiz, hitzarmen hau sinatzen duen Udaleri emandako zenbateko indibidualizatua 249.069.00 € euro da, guztira.

7.- Modulu bakoitzari dagokion zenbatekoa eguneratu egingo da Hezkuntza Sailaren mendeko eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-zentro publikoetako langileei egindako

soldata-igoera aintzat hartuta, baita Hezkuntza Sailaren mendeko musika-kontserbatorioei funtzionamendurako eta ekipamendurako esleitutako aurrekontu-partiden igoerak aintzat hartuta ere.

Bosgarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

a) Irakaskuntzetan zuzenean parte hartzen duten eta ezinbestekoak diren langileen gastuak: irakasleen gastuak, barne hartuta ordezkioenak; zuzendaritza-taldearen gastuak (zuzendaritza, idazkaritza eta ikasketa-burutza) eta administrazioari eta zerbitzuetako langileen gastuak. Langileen gastuek honako kontzeptu hauek hartuko dituzte barne:



835Rb0643815-ae70-4e0e-9906-eef2ab5b61288





Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuta.

Orokorrraren 36. artikuluan jasotako arrazoietako bat gertatuz gero.

Hamargarrena.- Dirulaquntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea

2.- Administrazioak honela kalkulatuko ditu berandutze-interesak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 38.2 artikuluan adierazitakoari jarraikiz. Horretarako, dirulaguntza ordaindu zenetik erakunde onuradunak dirulaguntza benetan itzuli arteko aldia hartuko da aintzat.

eta konpromisoei datzekien erantzukizunak baino ez dituzte bereganatzen.

Hamalagarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmena sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2022ko apirilaren 1a arte egongo da indarrean.

Hamabosgarrena.- Finantza-konpromisoak beteko direla bermatzeko klausula.

1.- ETELen 24.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, klausula bat gehitzen zaio lankidetzahitzarmen honi, bertan aurreikusitako finantza-konpromisoak beteko direla bermatzeko.

2.- Aipatutako legea betez, baimena ematen zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari sistema bat erabaki dezan, eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian aplikatu, EAEko Administrazio Orokorrak hitzarmena sinatu duen toki-erakundeari aurreko aurrekontu-ekitaldian egin gabeko finantza-transferentziak atxikitze, eta dagokion udalerriri edo dagokien udalerriei esleitzeko. Hori guztia, ordainketak ezarritako eran egiten ez direnerako. Transferentzia hori konpentsatu egin beharko da ordaintzeko betebeharra bete ez zen aurrekontu-ekitaldiaren ondoren ondoko ekitaldiaren lehen hiru hilabeteetan.

Eta, ados daudela adierazteko, agiri honen bi ale sinatu dituzte parte-hartzaileek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

JOKIN BILDARRATZ SORRON  
HEZKUNTZAKO SAILBURUA

BEASAINGO UDALA  
KO/GO ALKATEA

IZENA: LEIRE ARTOLA UGALDE

JOKIN  
BILDARRATZ  
SORRON -  
15960103N

Firmado digitalmente por JOKIN  
BILDARRATZ SORRON - 15960103N  
Fecha: 2021.12.21 12:00:08 +01'00'

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU307fa50f-1770-423e-9903-fde0021c3088**



Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatze, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERbf643315-ae79-4e0c-9396-ef7ab5b61287**



Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatze, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>